

Nafarroako Parlamentuan urriaren 17an, Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean

Egun on!

Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, hemen bildu gara, Nafarroako Parlamentuan, Gizarte Entitateen Plataforma (PES), Nafarroan pobrezia eta desberdintasuna desagerrarazteko eta herrialde pobretuekiko konpromisoa indartzeko.

Gizarte Erakundeen Plataforman lan egiten dugun 150 erakundeen ordezkariok, pertsona ahulenen egoera hobetuko duten politika publikoak garatzea eskatzen dugu, 2021-2030 aldirako Pobreziaren eta Desberdintasunaren aurkako Nafarroako Ituna ardatz nagusizat hartuta.

Gaur goizean Itunaren jarraipena egiteko tresna aurkeztu izana txalotzen dugu, Itunean adostutako neurriak lortzeko beste urrats bat delakoan gaudelako. Horrela, neurtu ahal izango dugu erakundeek 2030erako konprometitu dituzten helburuen garapena.

AROPE tasa, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren arriskua neurtzen duena, % 26raino igo zen Estatuan. Nafarroako egoerak ez du hobera egiten, 96.000 pertsona baitaude pobrezia-arriskuan, hau da, biztanleriaren % 14,5. Eta hori guztia kontuan hartu gabe, batez ere etxebizitza, garraioa, jantziak eta elikadura bezalako premia handiko artikuluetan handitzen den inflazioa, berez ahulduta dauden ekonomietan eragin handiagoa duena.

Gure sistemak ez du funtzionatzen. Munduko 62 pertsona aberatsenek Lurreko biztanle pobreenen erdiak adina aberastasun dute. Muturreko aberastasun horrek pobrezia, desberdintasuna, migrazioak, gatazka armatuak eta abar eragiten ditu. 103 milioi pertsona baino gehiago babes eta asilo bila dabil munduan zehar.

Planetako pertsona gehienek bizi duten errealitatea oso zaila da, pandemiak, krisi ekonomikoak, klima-aldaketak eta abarrek larriagotua. Eta errealitate honek ez dio mundu guztiari berdinean eragiten. KPIaren % 25erainoko igoerekin, Haitin bezala, oinarritzko produktuak, hornidura elektrikoa, ura, etxebizitza eta abar eskuratzea, herrialde askotan, ia ezinezkoa bihurtu da biztanleentzat.

Desgaitasunaren eremuan, datuek erakusten dute desgaitasuna duten pertsonen gizarte-bazterkeria eta pobrezia jasateko arrisku handiagoa jasaten dutela, batez besteko errenta desgaitasunik gabeko pertsonen baino txikiagoa dutelako, gastu handiagoak dituztelako, eta pertsona horiek jasaten dituzten gizarte-aurreiritziek eta diskriminazioak asko zailtzen dutelako gizartean eta lan-munduan sartzea.

Egoera zalantzarri eta korapilatsu baten aurrean gaude, baina Itunak dakartzan 131 neurri zehatzak betez gero, aldatu daiteke. Pobreziaren belaunaldien arteko transmisioa geldiarazteko neurriak, hain zuzen ere. Lan egin behar da planetako leku guztietan bizibaldintza duinak, seguruak eta inklusiboak lortzeko. Herritar guztiei osasuna, hezkuntza, etxebizitza, lan duina eta abar ere bermatu behar zaie, bereziki pertsona ahulenei.

Pobreziaren aurkako konpromisoak eredu ekonomiko solidarioak indartzea ere eskatzen du. Beharrezkoa da tokiko ekonomiaren alde egiten duten, enplegu duinak ziurtatzen dituzten, bazterketa-arriskuan dauden pertsonen aukerak ematen dizkieten eta ingurumen-konpromisoa duten enpresak eta ekimenak indartuko dituzten politikak egitea. Pobrezia eta bazterketa ekiditzen lagunduko duen eredu ekonomiko bat bultzatu behar da, munduko herrialde guztietan aberastasuna banatzen eta gizarteratzen lagunduko duena. Eta garapenerako nazioarteko lankidetzaren aldeko erabakirik behar da, lehen mailako politika publiko gisa, osasunarekin, hezkuntzarekin eta abarrekin batera.

Erakundeen inplikazioa eskertzen dugu, gaurko ekitaldian islatzen dena.

Hala ere, Itun hau betetzeko elkarrekin lan egiten jarraitzeko deia egiten dugu. Talde parlamentarioen benetako konpromisoa eskatzen dugu pertsona ahulenekin, betiere zer gizarte mota lortu nahi dugun pentsatuz.

Baina, horretarako, garrantzitsua da neurri horiek paper errean ez geratzea, eta Itunean ezarritako helburuak lortzeko ezarritako bideari jarraitzea.